

ZERBITZUARI LOTURIKO PRESTAZIO EKONOMIKOA

Kontzeptua:

Aldi baterako ematen den prestazioa da. Horren xedea da izaera pribatuko plaza baten kostua ordaintzen laguntzea, bai eguneko zentro batean, bai egoitza iraunkor batean, menpeko-egoeran dagoen pertsonak hiru hilabete baino gehiago daramatzanean izaera publikoko edo hitzartutako plaza batean sartzeko itxaron-zerrendan.

Lan Eremua:

Gipuzkoa.

Hartzaileak:

Mendekotasuna daukaten pertsonak

Baldintzak:

- Mendekotasun balorazioaren arabera (BVD) mendeko pertsona izatea.
- Egoitzako plaza lortzeko itxaron zerrendan hiru hilabete egotea.
- Baimendutako egoitza pribatuko plazarentzako aurrekontua izatea, edo fakturak zerbitzu pribatua jasotzen ari baldin bada.
- Zerbitzu honetako beste baldintza batzuk betetzea.

Sarbidea:

Hitz -ordua eskatu Udal Gizarte Zerbitzuetan 943 65 12 00 telefonoan.

Ekarpen Ekonomikoa:

Ezarritako kopuruen arabera da.